

## **KODE ETIKOA**

2018ko martxoaren 21ean eginiko bileran onartu zuen ITELAZPI SAKo Administrazio Kontseiluak Kode Etiko hau.

ITELAZPIren balio korporatiboekin bat dator kodea, eta printzipio hauek ditu oinarri:

- Aintzat hartzea legea eta barne-arauak
- Pertsonen duintasuna errespetatzea eta babestea
- Ingurumena eta haren jasangarritasuna babestea
- Enpresaren inpartzialtasuna eta harekiko leialtasuna
- Baliabide publikoak prestasunez erabiltzea
- Bikaintasuna eta gardentasuna

Kode honetako arau-multzoak ITELAZPIren kultura korporatiboa, balioak eta printzipioak islatzen ditu, eta enpresako jokabide-arauak indartzen. Administrazio Kontseiluak eta Zuzendaritza Nagusiak sustatzen dute kultura korporatibo hori, eta Kode Etiko hau betearazteko behar diren neurriak ere hartuko dituzte.

Enpresako gizon-emakume guztiei aplikatu behar zaie Kodea, barne direla Administrazio Kontseiluko eta Zuzendaritza Nagusiko kideak, bai eta hornitzaileei ere (pertsona fisikoak eta juridikoak).

Kode hau aplikagarri zaien guztien obligazioa da hemen jasota dauden jokabide-arauak betetzea eta betearaztea, bai eta ez-betetzeak salatzea ere, Salaketa Kanalaren bidez. ITELAZPIko norbaitek (edozein dela ere) ez badu betetzen Kode hau, ordenamendu juridikoan aurreikusten diren zigorrak aplikatuko zaizkio, edo sinatutako kontratu eta

## **CÓDIGO ÉTICO**

Este nuevo Código Ético ha sido aprobado por el Consejo de Administración de ITELAZPI, S.A. en reunión celebrada el 21 de marzo de 2018.

Alineado con los Valores Corporativos de ITELAZPI, se basa en los siguientes Principios:

- Respeto a la ley y a las normas internas
- Respeto y protección de la dignidad de las personas
- Sostenibilidad y protección del medioambiente
- Imparcialidad y lealtad con la organización
- Diligencia en el uso de los recursos públicos
- Excelencia y transparencia

Este Código se concibe como un conjunto de normas no exhaustivas que definen nuestra cultura corporativa, los valores y principios de ITELAZPI, y refuerza las pautas de conducta en la organización. Dicha cultura corporativa es promovida por el Consejo de Administración y la Dirección General, que respaldarán todas aquellas medidas precisas para garantizar el efectivo cumplimiento del presente Código Ético.

El Código resulta de aplicación a todas las personas que integran la organización, incluidas las integrantes del Consejo de Administración y la Dirección General, así como a las personas físicas o jurídicas proveedoras.

Todas las personas destinatarias de éste Código tienen la obligación de cumplir y hacer cumplir las normas de conducta contenidas en el mismo, así como denunciar, a través del Canal de Denuncias, aquellos incumplimientos de los que tengan conocimiento. El incumplimiento del presente Código por cualquier persona de ITELAZPI conllevará la aplicación de las sanciones previstas en el ordenamiento jurídico, y en los contratos o acuerdos



hitzarmenetan aurreikusten direnak, hornitzaileak badira (pertsona fisikoak zein juridikoak).

suscritos, cuando se trate de las personas físicas o jurídicas proveedoras.

## **ARAUDIA BETETZEA**

Indarreko legediaren, Kode Etiko honen eta aplikagarri diren barne-prozeduren arabera jardun behar dute ITELAZPIk eta han lan egiten dutenek.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek saihestu egin behar dute, beren eginkizunetan dihardutela, delituzko jokabideak edo Kode honen aurkakoak izateko arriskua, eta prestasunez jardun behar dute, enpresaren arauak betetzeko kultura hedatuz harekin harremanak dituzten interes-taldeei.

ITELAZPIk ez du onartzen larderiazko edo jazarpenezko jokabiderik laneko ingurunean, ezta legearen edo Kode Etiko honen aurka jarduteko inori eskaririk edo mehatxurik egitea ere.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek ez dute onartu behar legearen edo Kode Etiko honen aurkakatutako jotzen duten agindurik edo jarraibiderik. Hori dela eta, behar den informazioa eta trebakuntza emango zaie, beren eginkizunei aplikagarri zaizkien lege-betekizunen berri izan dezaten.

ITELAZPIk ez du onartzen inolako onurarik (material zein immaterialik) baldin eta legez kontra eskuratu badira, edo lege-arauak edo Kode honetan jasotako jokabide etikoak ez betetzearen emaitza badira.

Enpresaren egoera ekonomikoa zehatz adierazi behar dute kontabilitateak eta informazio ekonomikoak eta finantzarioak, oro har onartzen diren printzipioen eta aplikatzen diren arauetara jarraikiz, eta erabat debekatuta dago egoera hori ezkutatzea edo aldatzea.

## **CUMPLIMIENTO NORMATIVO**

ITELAZPI y las personas que la integran actuarán siempre con respeto a la legalidad vigente, al presente Código Ético y a los procedimientos internos que sean de aplicación.

Las personas de ITELAZPI evitarán en el ejercicio de sus funciones los riesgos de incurrir en conductas delictivas o contrarias a este Código, actuando de manera diligente y extendiendo la cultura de cumplimiento que impera en la empresa a los grupos de interés con los que se relacionen.

ITELAZPI no admite, en el entorno laboral, que se produzcan episodios de intimidación o acoso, ni solicitudes o amenazas dirigidas a inducir a las personas a actuar en contra de la ley o el presente Código Ético.

Las personas de ITELAZPI no acatarán órdenes o instrucciones que consideren contrarias a la ley o al presente Código. Para ello, aquellas recibirán la formación e información necesarias que les permita entender las obligaciones legales aplicables a su función.

ITELAZPI reniega de cualquier beneficio, material o inmaterial, obtenido ilícitamente o como consecuencia del incumplimiento de normas legales o comportamientos éticos contenidos en este Código.

La contabilidad y la información económico-financiera reflejará fielmente la realidad económica de la empresa, de acuerdo con los principios generalmente aceptados y normas aplicables, estando totalmente prohibido ocultar o distorsionar la misma.



Debekatuta daude Gizarte Segurantzako kuotak edo Estatuaren, autonomia-erkidegoaren, foru-aldundien edo udalen zergak ez ordaintzea xede duten jarduera guztiak.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek salatu egin behar dute delitu izan daitekeen edo Kode hau urratzen duen ekintza oro, halakoren berririk izaten badute, horretarako sortutako Salaketa Kanala erabiliz.

ITELAZPIk eta han lan egiten dutenek lagundu egin behar diete agintari judizialei edo organismo arautzaileei; gardenki eta bizkor erantzun behar diete haien eskariei, eta informazio egiazkoa, egokia eta koherentea eman.

## **PERTSONAK BABESTE A ETA ERRESPETATZEA**

ITELAZPIko langileen hautaketa printzipio hauei jarraikiz egin behar da: aukera-berdintasuna, publikotasuna eta gaitasuna.

Langile berriak hautatzean, ITELAZPIk ez du inolako diskriminaziorik aplikatu behar hautagaien arraza, sexu-joera, osasun-egoera, nazionalitatea, iritzi politikoak, erlijio-sinesmenak edo beste zeinahi ezaugarri dela-eta; hala eta guztiz ere, bultzatuz emakumeen edo beste talde bereziki ahul batzuen kontratazioa, baldin eta desorekatua bada talde horietako ordezkarien kopurua enpresan edo gainerako hautagaien balorazio bera lortu badute..

ITELAZPIk ez du kontratatuko, inoiz, adin txikiko langilerik. Halaber, ez ditu onartzen ez haurren lana, ez lan behartua edo bortxazkoa. Zaindu egin behar dira alderdi horiek kontratazio/prozesuetan

Lan-kontratu baten bidezkoa izan behar du, beti, lan-harremanak, eta, ahal dela, mugagabea izan behar du kontratuak.

Están prohibidas todas las prácticas tendentes a la elusión del pago de cuotas a la Seguridad Social o tributos de carácter estatal, autonómico, foral o local.

Las personas de ITELAZPI deben denunciar cualquier hecho del que tengan conocimiento, que pudiera ser constitutivo de delito o suponer vulneración de lo dispuesto en el presente Código, utilizando para ello el Canal de Denuncias establecido al efecto.

ITELAZPI y las personas que la integran colaborarán con las autoridades o judiciales y organismos reguladores, atendiendo a sus requerimientos con transparencia y celeridad, facilitando información veraz, adecuada y congruente.

## **PROTECCIÓN Y RESPETO A LAS PERSONAS**

La selección del personal en ITELAZPI se llevará a cabo respetando los principios de igualdad de oportunidades, publicidad y capacidad.

ITELAZPI llevará a cabo la selección evitando cualquier discriminación por razones de sexo, orientación sexual, estado de salud, nacionalidad, opiniones políticas, creencias religiosas o cualquier otra condición personal de sus interlocutores e interlocutoras, sin perjuicio de que se pueda favorecer la contratación de mujeres u otros colectivos especialmente desfavorecidos ante igual valoración y desequilibrio de presencia en la organización.

ITELAZPI en ningún caso contratará menores de edad. Asimismo, rechaza el trabajo infantil y el trabajo forzoso u obligatorio. Estos aspectos serán vigilados en los procesos de contratación.

El establecimiento de la relación laboral se realizará, en todo caso, mediante un contrato laboral, procurando siempre que el mismo tenga carácter indefinido.



ITELAZPIIn lan egiten duten guztiei jakinarazi behar zaie zer ezaugarri eta eginkizun dituen dagokien lanpostuak, zer baldintza sozial eta zer arrisku dituen, eta zenbat ordainduko zaien.

ITELAZPIk hitzematen du dagozkion neurriak hartuko dituela eginkizun profesionalak eta bizitza pertsonala eta familiarra ahalik eta ondoena uztartzeko.

ITELAZPIIn lan egiten duten guztiek izan behar dituzte behar dituzten bitartekoak ahalik eta ondoena egiteko beren lana, eta zorrotz bete behar da labeko segurtasun- eta osasun-alorreko araudia.

ITELAZPIk hitzematen du ez duela urratuko greba egiteko eskubidea, ez eta lan-legeriak edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboak aitortzen duen beste zeinahi eskubide ere.

ITELAZPIk eta han lan egiten dutenek saihestu egin behar dute diskriminazio-mota oro solaskideen adina, sexua, sexu-joera, osasun-egoera, nazionalitatea, iritzi politikoak, erlijio-sinesmenak edo beste zeinahi ezaugarri dela-eta, bai enpresa barruko harremanetan, bai kanpokoetan (interes-taldeekiko harremanak eta herritar orekikoak).

ITELAZPIk hitzematen du behar bezala zainduko dituela bere langile, kontratista eta bisitarien osasuna eta segurtasuna, eta lan-leku seguruak izango dituztela langileek, bai eta norberaren duintasuna aintzat hartzen duten lan-baldintzak ere.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek laneko osasun eta segurtasunarekiko errespetua sustatu behar dute interes-taldeekiko harremanetan.

Al personal de ITELAZPI se le informará del contenido del puesto de trabajo, las tareas a realizar, los elementos retributivos y condiciones de carácter social, y los riesgos laborales del puesto.

ITELAZPI se compromete a impulsar la adopción de medidas adecuadas para favorecer la máxima conciliación de las tareas profesionales con la vida personal y familiar.

Todo el personal de ITELAZPI contará con los medios necesarios para el desarrollo de su trabajo en las mejores condiciones posibles, cumpliendo estrictamente con la normativa en materia de seguridad y salud laboral.

ITELAZPI se compromete a no vulnerar el derecho de huelga y cualquier otro derecho reconocido en la legislación laboral o Convenio Colectivo aplicable.

ITELAZPI y las personas que la integran evitarán cualquier tipo de discriminación por edad, sexo, orientación sexual, estado de salud, nacionalidad, opiniones políticas, creencias religiosas o cualquier otra condición personal de sus interlocutores, tanto en las relaciones internas de la organización, como en las externas con nuestros grupos de interés o con la ciudadanía en general.

ITELAZPI se compromete a velar por la salud y la seguridad de su personal, contratistas y visitantes, y a ofrecer un lugar de trabajo seguro, con condiciones de trabajo que respeten la dignidad individual.

Las personas de ITELAZPI promoverán el respeto por la salud y la seguridad en el trabajo en sus relaciones con los diferentes grupos de interés.



Gure interes-taldeekiko harremanetan, batez ere enpresa hornitzaileekin izaten ditugunetan, zorrotz betearazi behar zaizkie lan-araudia eta aplikagarri diren hitzarmen kolektiboak gure kontratuak gauzatu behar dituztenei, bai eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ere.

Harreman hierarkikoei dagokienez, berriz, ITELAZPIk hitzematen du zuzen eta ekitatez jardungo dela, eta saihestu egingo duela agintekeria oro.

Agintaritzaren postuak eta bitarteko karguak dituztenek beren gain hartu behar dute bere ekintzen erantzukizuna, eta ez hierarkian azpitik dituztenen bizkar utzi.

Taldeko lana sustatu behar dute ITELAZPIk eta han lan egiten dutenek, eta saihestu egin behar dituzte jarrera individualistak eta lankidetzaren oztopatzen duten laneko jokabideak. Halaber, jarrera proaktiboa izan behar dute lanean: ideia berriak sortu, eta eztabaida, partaidetza eta iritzi-alderaketa sustatu.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek ez dute inoiz erabili behar bere kargua eurentzat, zuzenean edo zeharka, abantailak edo beste zeinahi pertsona edo erakunderentzat abantailak edo desabantailak bilatzeko, arauak urratuz.

ITELAZPIk eta han lan egiten dutenek kultura sustatu behar dute, euskara bereziki, barne- zein kanpo-harremanetan.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek jokabide zuzena izan behar dute lanean, beti, eta lanean ari direla ez dute drogarik edo alkoholik kontsumitu behar, ez eta indarkeriazko jokabiderik izan, diskriminazio- edo jazarpen-egoerarik sortu eta lankideen baimenik gabe haien bizitza pribatuan sartu behar ere.

En la relación con nuestros grupos de interés, especialmente con las empresas proveedoras, se velará por que estas, respecto de las personas adscritas a la ejecución de nuestros contratos, respeten escrupulosamente el cumplimiento de la normativa laboral y los Convenios Colectivos aplicables, así como las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

En las relaciones jerárquicas, ITELAZPI se compromete a actuar de forma correcta, equitativa y evitando cualquier tipo de abuso.

Las personas que ocupen puestos directivos o mandos intermedios asumirán la responsabilidad de sus actos, evitando trasladar a sus inferiores jerárquicos las consecuencias de los mismos.

ITELAZPI y las personas que la integran promoverán el trabajo en equipo, evitando actitudes individualistas y pautas de trabajo que impidan o dificulten la coparticipación. Asimismo, mantendrán una actitud proactiva en el desarrollo de su trabajo, aportando ideas, favoreciendo el debate, la participación y la confrontación de pareceres.

Las personas de ITELAZPI no utilizarán, en ningún caso, su posición con la finalidad de obtener, directa o indirectamente, ventajas para ellas o procurar ventajas o desventajas para cualquier otra persona o entidad contraviniendo las normas.

ITELAZPI y las personas que la integran promoverán la cultura, especialmente el uso del euskera, tanto en las relaciones internas como hacia el exterior.

Las personas de ITELAZPI deben mantener en el trabajo siempre un comportamiento correcto, evitando en todo momento el consumo de drogas o alcohol durante la jornada laboral, comportamientos violentos, situaciones de discriminación o acoso y cualquier intromisión en la vida privada de compañeros o compañeras de forma no consentida.



## **INGURUMENAREN ZAINZA ETA BABESA**

ITELAZPIk eta han lan egiten dutenek erabateko konpromisoa dute ingurumenaren zaintzarekin, eta indarreko legediaren eskakizunak betetzen dituzte.

Ingurune naturalean egiten den jarduera orori aplikatzen zaio balio naturalen zaintzaren eta jasangarritasunaren printzipioa.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek jasangarriki jarduteko kultura hedatu behar dute solaskideen artean — hornitzaileen artean, batez ere—, lanak egitean, zerbitzuak eskaintzean eta ITELAZPIk eskatzen dituen ekipoak eta sistemak diseinatzean eta fabrikatzean.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek hitzematzen dute arreta bereziz jardungo direla baliabide naturalak kontsumitzean, ahalik eta gutxiena erabiliz eta iturri alternatiboak sustatuz, eraginkorrak badira.

Hondakinen tratamenduan, haien berrerabilpena edo birziklatzea lehenetsi behar da. Hondakinen ezabaketa, berriz, gaika eta indarreko legediari jarraikiz egin behar da, eta inolaz ere ez dira kontrolik gabe bota edo isuri behar.

Ondasunak eta zerbitzuak, batez ere berotegi-efektuko gasen emisioan zuzeneko edo zeharkako inpakturik eragiten dutenak, inpaktu hori eragozten edo leuntzen duten ingurumen-irizpideen arabera erosi behar dira.

ITELAZPIk hitzematzen du konpentsazio-ekintzak garatuko dituela bere ohiko jarduerak natura-ingurunean eragiten dituen inpaktuak direla eta.

## **RESPECTO Y PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE**

ITELAZPI y las personas que la integran manifiestan su absoluto compromiso con la defensa del medioambiente, respetando las exigencias contempladas en la legislación vigente.

Todas las actuaciones que se lleven a cabo en el medio natural estarán informadas por el principio de defensa de los valores naturales y la sostenibilidad.

Las personas de ITELAZPI trasladarán a sus interlocutores, especialmente a los proveedores, la obligación de actuar de manera sostenible, tanto en la ejecución de trabajos o en la prestación de servicios, como en el diseño y fabricación de los equipos y sistemas demandados por ITELAZPI.

Las personas de ITELAZPI se comprometen a observar un especial cuidado en el consumo de recursos naturales, minimizando el mismo y fomentando el uso de fuentes alternativas cuando ello sea eficiente.

En el tratamiento de los residuos se debe hacer prevalecer la reutilización o el reciclaje de los mismos. Cuando se proceda a su eliminación, ésta se hará de manera selectiva y conforme a la normativa vigente, evitando, en todo caso, el vertido incontrolado de los mismos.

Las compras de bienes y servicios, especialmente de aquellos que impacten de manera directa o indirecta en la emisión de gases de efecto invernadero, deben someterse a requisitos medioambientales que eviten o atenúen dicho impacto.

ITELAZPI se compromete a desarrollar acciones compensatorias por los impactos que su actividad ordinaria provoca en el medio natural.



## **OBJEKTIBOTASUNA ETA LEIALTASUNA**

Ardura eta profesionaltasun erabatekoz jardun behar dute ITELAZPIko langileek, herritarrei zerbitzu emanaz eta esfortzuen kultura hedatuz.

ITELAZPIko langileek interes orokorra asetzen saiatu behar dute une oro, alde batera utzirik norberaren edo hirugarren batzuen interes partikularrak, eta objektibotasunez eta gardentasunez jardun.

ITELAZPIko langileek enpresaren balio korporatiboekin eta helburuekin bat eginik jardun behar dute, eraginkortasuna, ekonomia eta efizientzia printzipio gidari dituztela.

ITELAZPIko langileek enpresatik kanpo ematen duten irudiak bat etorri behar du haren balio korporatiboekin.

ITELAZPIko zuzendariak eta langileek jardun eskusiboa izan behar dute, eta ez dute egin behar bestelako lanik (ordainduak edo ordaindu gabeak) enpresatik kanpo, ez jarduera-sektore berean ez besteren batean. Salbuespen gisara, ikastaroak eta hitzaldiak eman ditzakete, betiere dagokion baimena eskuratuta eta lan-jarduerari kalterik eragin gabe.

Hirugarren batzuekiko harremanetan berriz, gardenki eta argiki jardun behar da beti; saihestu egin behar dira erroreak edo erabaki okerrak eragin ditzaketen egoera engainagarriak, zalantzarriak edo zehazgabeak, eta gure zerbitzuei buruzko informazio egiazkoa, osoa eta zehatza eman behar da.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek ez dute onartu behar oparirik, mesederik edo tratu mesedegarririk, kortesiazko ohituretatik landa, beren lanaren neutraltasuna eta objektibotasuna baldintzatu badezakete.

## **OBJETIVIDAD Y LEALTAD**

Las personas de ITELAZPI prestarán sus servicios en la empresa aportando el máximo grado de entrega y profesionalidad, actuando con dedicación y promoviendo una cultura de esfuerzo y de servicio a la ciudadanía.

Las personas de ITELAZPI procurarán en todo momento la satisfacción del interés general, evitando favorecer aspiraciones particulares o de terceras partes y actuando en el desempeño con objetividad y transparencia

Las personas de ITELAZPI actuarán alineadas con los valores corporativos de la organización y con los objetivos definidos por ella, basándose en los principios de eficacia, economía y eficiencia.

Las personas de ITELAZPI transmitirán hacia el exterior una imagen de la organización acorde con los Valores Corporativos de la misma.

El personal directivo y empleado de ITELAZPI mantendrá dedicación exclusiva a la organización, absteniéndose de realizar otros trabajos, remunerados o no, en el mismo o en otros sectores de actividad, excepto la participación en cursos y conferencias, que deberá de contar con la autorización correspondiente y siempre que no suponga detrimento en su dedicación.

En las relaciones con terceros se actuará siempre con transparencia y claridad, evitando actuaciones engañosas, equívocas o poco rigurosas que puedan inducir a error o a tomar decisiones equivocadas, proporcionando siempre información veraz, completa y exacta de nuestros servicios.

Las personas de ITELAZPI se abstendrán de aceptar regalos, favores o tratos de favor, más allá de los usos habituales de cortesía, que puedan condicionar la neutralidad y la objetividad en su cometido.



ITELAZPIko langileek beren agintariei jakinarazi behar dizkiete enpresaren interesetarako kaltegarriak izan daitezkeen informazioak edo berriak.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek ez dute esku hartu behar interes-gatazkarik izan dezaketen gaietan, ez eta ezagutzen ez dituztenetan edo behar adina menderatzen ez dituztenetan ere. Egoera hauetan sortzen da interes-gatazka: ITELAZPIIn lan egiten dutenek esku hartzen duten erabakietan bat egiten badute haien karguen interesak eta beren interes propioak, zuzeneko senideenak eta hirugarren batzuenak.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek ez dute izan behar harreman komertzialik senideekin edo harreman pertsonalak direla-eta ITELAZPIren jarduera baldintzatzen edo kaltetzen duen inorekin.

Ez da onartzen inolako opari, mesede edo tratu mesedegarririk egitea edo ematea, baldin eta normalean onartzen diren kortesia-ohituretatik kanpo daudela jo badaiteke. Ez dira mugapen horretan sartzen balio eskaseko propaganda-objektuak eta gonbidapen normalak, ohitura sozialetan eta kortesiazkoetan arrazoizkotzat jotzen diren mugak ez badituzte gainditzen.

Zuzendaritzak eman behar du baimena enpresari buruzko informazioak hirugarren batzuei, komunikabideei edo bestelako plataforma digitalei azaltzeko.

Debekatuta dago albiste edo iruzkin faltsuak, alderdikoiak edo iraingarriak hedatzea. Komunikazio-jarduera guztiak legeak eta barne-arauak bete behar dituzte, eta argiak, gardenak eta egokiak izan behar dute; horrez gain, babestu egin behar dira informazio delikatuak eta sekretu industrialak.

Las personas de ITELAZPI darán a conocer a sus superiores las informaciones o noticias a las que tengan acceso y que pudieran resultar perjudiciales a los intereses de la organización.

Las personas de ITELAZPI se abstendrán de intervenir en asuntos en los que pudieran incurrir en conflicto de intereses, así como en aquellos que desconozcan o no conozcan suficientemente. Existe un conflicto de intereses cuando las personas de ITELAZPI intervienen en las decisiones relacionadas con asuntos en los que confluyen a la vez intereses de su puesto e intereses privados propios, de familiares directos, o intereses compartidos con terceras personas.

Las personas de ITELAZPI evitarán el establecimiento de relaciones comerciales con familiares o con personas con las que la relación personal condicione o perjudique la posición de ITELAZPI.

No se admite la realización de ningún tipo de regalo, favor o trato de favor que pueda ser interpretado como algo que excede los usos de cortesía comúnmente aceptados. No se incluyen en dicha limitación los objetos de propaganda de escaso valor y las invitaciones normales que no excedan de los límites considerados razonables en los usos habituales, sociales y de cortesía.

La realización de comunicaciones a terceras partes o a través de medios de comunicación u otras plataformas digitales de informaciones de la empresa, estará sometida a previa autorización de la dirección.

Está prohibida la divulgación de noticias o comentarios falsos, tendenciosos o denigrantes. Todas las actividades de comunicación han de respetar las leyes y las normas internas, y se llevarán a cabo con claridad, transparencia y oportunidad, salvaguardando, entre otras, las informaciones sensibles y los secretos industriales.





ITELAZPIIn lan egiten dutenek ez dituzte erabili behar eskuragarri dauzkaten datu pertsonalak legeak edo kontratuak agintzen dutenaz bestelako xedeetarako, ez eta bidegabeki erabili ere eskuragarri duten informazio konfidentziala.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek errespetatu egin behar dituzte enpresak egindako lan ororen jabetza intelektuala eta erabilera-eskubidea, bai eta hirugarren batzuen jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak ere. Halaber, honetarako bakarrik erabil daitezke ITELAZPIren izena eta marka: enpresan jarduera profesionala garatzeko, bai eta hirugarren batzuei dagokiena ere, haiekin adostutako baldintzen arabera.

ITELAZPIk ez du finantzatuko ez alderdi politikorik, ez haien ordezkari edo hautagairik, ezta xede bakartzat propaganda politikoa duten biltzarrik edo ekitaldirik ere.

Erakunde edo alderdi politikoren bateko kide izatea norberaren alor pertsonalari dagokio soilik, eta ez da inondik ere lotu behar enpresarekin

Enpresako norbaitek kargu publikoren batean jardun behar badu, aldeaz aurretik jakinarazi behar dio zuzendaritzari, azter dezaten ea bateraezintasunik dagoen pertsona horrek egiten duen lanaren eta kargu publikoaren artean.

### **BALIABIDE PUBLIKOAK PRESTASUNEZ ERABILTzea**

ITELAZPIIn lan egiten dutenek austeritate- eta eredugarritasun-irizpideen arabera erabili behar dituzte baliabide publikoak, eta arduraz baliatu haietaz.

Enpresak eskura jartzen dizkien bitartekoak ere behar bezala erabili behar dituzte, hondamenik jasan ez dezaten.

Las personas de ITELAZPI no podrán tratar los datos de carácter personal a los que tengan acceso para fines distintos de los legal o contractualmente previstos, ni podrán hacer uso indebido de la información confidencial a la que tengan acceso.

Las personas de ITELAZPI deberán respetar la propiedad intelectual y el derecho de uso de cualquier obra o trabajo desarrollado por la organización e, igualmente, respetarán los derechos de propiedad intelectual e industrial de terceros. Asimismo, la imagen nombre y marca de ITELAZPI solo podrá ser utilizada para el desarrollo de su actividad profesional en la empresa, y las correspondientes a terceros en los términos acordados con éstos.

ITELAZPI no financiará a partidos, ni a sus representantes o candidatos o candidatas, ni patrocinará congresos o eventos que tengan como único fin la propaganda política.

La pertenencia a asociaciones o partidos políticos se realizará dentro del estricto ámbito personal, evitando cualquier vinculación con la organización.

Si alguna persona de la plantilla fuera a desempeñar un cargo público, deberá de comunicarlo de forma previa a la Dirección, a fin de determinar si existen incompatibilidades con el puesto desempeñado.

### **DILIGENCIA EN EL USO DE LOS RECURSOS PÚBLICOS**

Las personas de ITELAZPI actuarán movidas por criterios de austeridad y ejemplaridad en el uso de los recursos públicos, haciendo un uso responsable de los mismos.

Los medios proporcionados por la empresa deberán de ser tratados de forma que no sufran menoscabos.



ITELAZPIIn lan egiten dutenek zaindu egin behar dituzte erabilgarri edo eskuragarri dituzten aktiboak, zeinak dagozkien eginkizun profesionalen arabera erabili behar baitira, eta ez da suntsitu, aldatu edo kaltetu behar ITELAZPIren programarik edo dokumenturik.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek ez dute ITELAZPIren aktiborik erabili edo zergapetu behar dagokion baimenik jaso gabe.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek ez dute egin behar enpresaren premiekin doi ez datorren gasturik.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek ez dute besterendu, transmititu, laga edo ezkutatu behar ITELAZPIren titulartasunpeko inolako ondasunik hartzekodunekiko erantzukizunak saihestearren.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek ez dute erabili behar enpresaren baliabiderik beste pertsona edo talde batzuen aurka jarduteko ideologia, erlijioa, egoera familiarra, etnia, sexua, sexu-joera edo desgaitasunen bat dela medio, ez eta gizateriaren aurkako delituak edo genozidioak goresteko edo haien egileen alde egiteko ere.

## **GARDENTASUNA ETA BIKAINASUNA**

ITELAZPIIn lan egiten dutenek etengabeko hobekuntzaren printzipioaren arabera jardun behar dute beti, eta helburu neurgarriak jarri, onartutako estrategia, plan eta programei jarraikiz.

ITELAZPIIn lan egiten dutenek sormena eta berrikuntza sustatu behar dute zerbitzuak diseinatzean eta haiek ematean.

Las personas de ITELAZPI protegerán y cuidarán los activos de los que dispongan o a los que tengan acceso, que serán utilizados de forma adecuada a la finalidad de las funciones profesionales para cuyo ejercicio han sido entregados, evitando destruir, alterar o dañar datos, programas o documentos de ITELAZPI.

Las personas de ITELAZPI no realizarán ningún tipo de disposición o gravamen sobre los activos de ITELAZPI sin la oportuna autorización.

Las personas de ITELAZPI evitarán la realización de gastos que no se ajusten estrictamente a las necesidades de la organización

Las personas de ITELAZPI no realizarán ningún acto de enajenación, transmisión, cesión u ocultación de cualquier bien titularidad de ITELAZPI con la finalidad de eludir el cumplimiento de las responsabilidades del mismo frente a sus acreedoras.

Las personas de ITELAZPI no deben utilizar los medios de la empresa para actuar contra otras personas o grupos por razón de ideología, religión, situación familiar, etnia, sexo, orientación sexual, discapacidad, o para emitir opiniones enalteciendo delitos contra la humanidad, genocidio o mostrando apoyo a los autores de los mismos.

## **TRANSPARENCIA Y EXCELENCIA**

Las personas de ITELAZPI actuarán siempre guiadas por el principio de mejora continua, estableciendo objetivos medibles, en consonancia con la estrategia y los planes y programas aprobados.

Las personas de ITELAZPI promoverán la creatividad y la innovación en el diseño y en la prestación de los servicios.



ITELAZPI In lan egiten duten guztiek hartu behar dute parte enpresaren trebakuntza-programetan, ezinbestekoak baitira kalitateko zerbitzuak bermatzeko.

Kortesia instituzionalaren printzipioa bete behar da, beti, hirugarren batzuekiko harremanetan, batez ere erakunde publikoekiko harremanetan.

Gardenak izan behar dute jarduerak, eta informazioa formatu eskuragarrietan jarri behar da, herritarrek informazio-, kexa- eta erreklamazio-eskubideak balia ditzaten.

ITELAZPI In lan egiten dutenek zaindu egin behar dute beren lana dela-eta eskuragarri dituzten datu edo informazioen konfidentziasuna. Betebehar horrek indarrean jarraitzen du enpresan baja eman edo lan egiteari utzi ondoren ere.

ITELAZPIk bizkor eta egokiro erantzun behar die bere lana dela-eta iristen zaizkion eskari, kexa eta erreklamazioei.

**Itelazpi kanal konfidentziala ezarri du edozein pertsonak komunika ditzan, fede onez, Arrisku Penalen Kudeaketa-sistemaren barne-araudiaren edo indarreko legeriaren gaineko balizko ez-betetze eta irregulartasunen inguruko salaketak edo kontsultak; hauxe da kanal hori:**

Todas las personas de ITELAZPI deben participar en los programas formativos de la empresa, como medio necesario para asegurar servicios de calidad.

En las relaciones con terceras partes, especialmente con otras instituciones públicas, se observará siempre el principio de cortesía institucional.

Las actuaciones serán transparentes, soportando la información en formatos accesibles, que garanticen que la ciudadanía pueda ejercer sus derechos de información, queja o reclamación.

Las personas de ITELAZPI mantendrán la confidencialidad respecto de los datos o informaciones a los que tengan acceso por razón de su cometido. Esta obligación mantendrá su vigencia aun después de cesar o causar baja en la organización.

ITELAZPI atenderá con celeridad y corrección las peticiones, quejas y reclamaciones que le sean trasladadas en relación con su cometido.

**El canal confidencial implantado por Itelazpi para que cualquier persona pueda comunicar, de buena fe, denuncias, o realizar consultas sobre posibles incumplimientos e irregularidades de la legalidad vigente o de la normativa interna de su Sistema de Gestión de Riesgos Penales, es el siguiente:**

[salaketak@itelazpi.eus](mailto:salaketak@itelazpi.eus)